

ANGOSTO

Irakurlerik geienak, nik uste, izango ziran noz edo noz toki zoragarri onetan. Bakar-lekua da eta orregaitik atsedeen-leku arrigarria.

* * *

Eleizan ez daukagu zer-ikusi aundirik.
Ba-dauka konpondu ta barriztu-bearra!

Baiña antxe daukagu Andra Maria'ren irudi oso eder eta-esangura aundikoa eta euskaldunen aldetik oso maitatua: Irribarre maitekorra, alea eskuan, jesarrita. Umea bere altzoan errira begira eta bedeinkatzeko ziñua egiten, jantzi ondo tolestua...

Amalaugarren gizaldi-ingurukoa dala esango neuke eta ba-dauka Andra Mari askoren antza.
Ederra ta maitagarria benetan!


* * *

Alboan ostatu-etxe barria ta gozatsua, bere barrenean edatetxe atsegiña dauala.

Ba-zan antxiña be toki orretan bidaztientzat ostatua, bai na gaur olako bidazti fedetsuak urritu diran ezker, ibiltarientzat ostatua egitea be ez dago txarto.

Ez ete dira oneik gaurko bidazti gizarteratuak?

* * *



Omezillo errekearen ondoan, ager-toki isilla ta otoitz-girokoa.



Antxiñako inguru zoragarrian, gaurko tankeraz eregitako ostatua.

Basorantza, zugatz-artean, maiak. Oneik ostaturako dirurik ez dauken eta izadiagaz artu emonetan urrago bizi nai danentzat.

* * *

An errekatxuaren ondoan, Omezillo-ondoan, Andra Maria'ren irudia artzaiñak aurkitu eban tokia: Toki isilla ta otoitz egiteko egokia.

Izadira urreratzeko deia egiten dabela esan lei, an ur gardenetan bizi-bizi dabilzan arraintxuak!

* * *

Eta inguruetan baso ugari ta ederrak, erri txiki ta politak, mendi-muiño ikusgarriak.

Baiña kondaira-zaleentzat tokirik ikusgarriena inguru aretan Valpuesta'ko eleiza, Burgos barruan.

Ainbat bider izan gara an, baiña beti aurkitu dogu itxita gotiku-tankerako eleiz ikusgarri ori: Bidaztiak diru gitxi emoten ei dabe eta abadeak ez ei dau idegi gura diru asko ez batzekotan.

Ori kondaira-zaletasuna!

Eleiz-inguruko etxeak, gaztelua, ostatuak... dana da ikusgarri.

* * *

Zein dan kondaira-aldeko garrantzia?

Antxe euken euren gotzaiña autrigoi euskaldunak erdi-aroan.


Autrigoiak Nerbion ibriaren ezker-aldean bizi ziran eta arin ikasi eben erdere; guk orain diardugu ikasten. Zenbat agiri zar izan ete ziran eleiz-aretan, autrigoi kondaira argitzeko.

Eta non ete dira orain!

* * *

Astialdi baten, ikusi Angosto ta Valpuesta euskalerriren ertzean!

OLAZAR'tar Martin'ek



ANGOSTO'ko Amaren inguruko iruditegia.